



Argi berdea Durangoko tren geltoki zaharraren inguruko herri galdeketa egiteko

Espainiako Gobernuak Durangoko tren geltokiari buruzko galdeketa baimendu du. Durangoko Udalak eta Erabaki plataformak "pozik" hartu dute albistea. • 4



"Borroka guztiak gure egiten genituen, eta gure borroka besteena ere izatea gura genuen"

LGTB Harrotasunaren Eguna ospatuko da ekainaren 28an. Gutxiak dakite Durango izan zela Euskal Herriko LGTB mugimenduaren sorburua. • 6-7

Atxondoko eta Berrizko jaiak, normaltasun berriko lehenengoak

Durangaldea | Jai egitarauak segurtasun neurriak hartuta aurreikusi dituzte. Datorren astean Zaldibarren txanda izango da.

8-11. orrialdeak

ALKIMAX  
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Golko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.net



ENBORRAK  
EZPALETAN  
ZATITZEKO  
GAILUA



BIRRINGAILUA



AREA



MAILUEN  
MOTOSEGA



# AHTaren kontrako aldarria berriro kalean dela zabalduko dute uztailaren 4an, zapatuan, bizikleta martxa baten bitartez

Abadiñoako plazatik abiatuko da, 10:00etan; ondoren, Atxondotik igaro eta gero, Elorrión ekitaldia egingo dute, 13:00etan

**DURANGALDEA • AM/JD**

Pedalkadaz pedalkada, "aspaldi sortutako mugimendua berpiztea" gura dute antolatzaileek bizikleta martxagaz. Martitzenean prentsaurrekoa eskaini zuten Abadiñon, ekitaldia aurkezteko. AHTaren kontrako hainbat mugimendu batu zen bertan, azken asteetan AHTko lanak egiten ari diren gune batean. "Gogoz jarraitzen dugu Durangaldean antolatzeke eta lanean jarraitzeke AHT gelditzeke, beste mugikortasun eta beste garraio eredu baten alde", azaldu zuen Oihana Azkorbebeitiak, bertaratutakoen izenean.

Euren aldarria lau haizetara zabaltzeko, bizikleta martxa bat egingo dute. Uztailaren 4ko zapatuan izango da. Abadiñoako Txanporta plazatik irtengo dira, 10:00etan. 11:30ean hamaiketako egingo dute Atxondon, eta 13:00etan ekitaldia egingo dute Elorrioko plazan.

Konfinamendu sasoia AHTa eraikitzeke baliatu izana egotzi diete agintariei. "Osasun sistema

krisian murgilduta eta gu konfinatuta egon garen bitartean, obrek aurrera jarraitu dutela salatu gura dugu. Kamioien joan-etorria eta inguruko lurretan sortzen dabilen zainen gainerako eragozpenak jasaten ari gara herritarrok", adierazi zuten. Horrez gainera, gogoan eduki gura izan dituzte Mendiola oraintsu eraitsitako Mendilibar-erdikoa eta Goxentziagirre baserriak, eta Atxondoko maisu-maistren etxea.

## Diru "xahuketa"

AHTaren proiektua "diru xahuketa" dela adierazi zuten, eta "oraindino posible" dela lanak gelditzea: "Kontrakoa esaten diguten arren, AHTaren obraren erdia ere ez dago egin da. Egintzat saltzen duten hori obra zibila baino ez da, eta honi gehitu beharko genizkioke trenbidea, katenaria, segurtasun sistema guztiak eta trena bera. Atzera bueltarik ez duela sinestarazi gura badigute ere, gehiena egiteko dago oraindino, eta, beraz, gelditu daiteke eta gelditu egin behar da". AHTa amai-



Martitzenean Abadiñoako Mendiola auzoan eskaini zuten prentsaurrekoa.

**"Atzera bueltarik ez duela sinestarazi gura badigute ere, gehiena egiteko dago oraindino"**

tzeko behar den denbora da lanak geldiarazteko beste arrazoiatariko bat, azaldu dutenez. "Aurreko astean argitaratu berri denez, Euskal Y ez litzateke funtzionamendu osoan egongo beste 29 urtean ere, ipar Euskal Herriko konexioa ez baita 2037 baino lehenago plani-

fikatuta egongo. Horiek horrela, orain arte egindako azpiegiturak zaharkituta egongo lirateke eta lan gehiago egin beharko litzateke berriro dena berrizteko. Hori dena kontuan hartuta, proiektu honek ez du ez hankarik ez bururik", azaldu zuten.

## 22 urteren ondoren, Garaik ordezkariak izango ditu berriro Amankomunazgoko erabaki guneetan

Azken 22 urteetan Garaiko Udalak ez du ordezkariarik izan Amankomunazgoan, 1998an bertatik irtetea erabaki zuenetik

**GARAI • JOSEBA DERTEANO**

Durangaldeko Amankomunazgo-ko azkenengo osoko bilkura esanguratsua izan zen Garai herriarentzat. Izan ere, gai ordeneko puntu bat Garai berriro Durangaldeko Amankomunazgoan eta bertako erabaki organoetan sartzea onartu zuten. Garaiko Udaleko ordezkariak bertan izan ziren eta bertatik bertara jarraitu zuten osoko bilkura hori.

Ia mende laurdena joan da Garaia azkenengoz Amankomunazgoaren parte izan zenetik. Izan ere, 1998. urtean Amankomunazgoa

**Erramun Osa alkatea eta Ane Etxeita izango dira garaitarren bi ordezkariak Amankomunazgoan**

uzteko erabakia hartu zuen orduko Garaiko Udalak, eta azken 22 urteetan ez da garaitarren ordezkariarik izan erabaki guneetan.

### Ordezkarik bi

Beraz, Amankomunazgoa zerbitzua jasotzeaz gainera, garaitarrek ordezkari bi izango dituzte osoko bilkuretan hemendik aurrera. Erramun Osa gaur egungo alkatea izango da ordezkari horietariko bat (Eusko Alderdi Jeltzalea), eta Ane Etxeita (Herriko Taldea) izango da bestea.



Garaiko udaletxea.

## Durangoko EH Bilduk lokala zabaldu du hauteskunderi begira



Askatasun Etorbidea 27an dago herritarrei begirako bulegoa.

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Hauteskunderi begira, Durangoko EH Bilduren lokala zabalik dago martitzenetik. Askatasun Etorbidea 27an dago bulegoa, Herria Elkarteko biribilgunearen parean.

Aurrerantzean, astelehenetik barikura 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara zabalduko dute; baita zapatu goizetan ere, 10:00etatik 13:00etara. Posta bidezko botoa tramitatzen ere lagunduko dute, ohar batean jakinarazi dutenez.

## Elkarrekin Podemosen mitina eskainiko du domekan, Durangon

**DURANGO • J.D.**

Podemos Ahal Dugu Durangaldea zirkuluak kanpaina ekitaldiak iragarri ditu hauteskunde autonomikoetarako. Ekitaldi nagusia mitin bat izango da, domeka honetan Andra Mariko elizpean egingo dutena. Miren Gorrotxategi durangarrak, Elkarrekin Podemos-IUko lehendakariak, parte hartuko

du bertan, beste hainbat zerrendaburugaz batera.

Kanpaina egunetan informazio mahaiak ipiniko dituzte Durangoko hainbat tokitan. Esaterako, domekan Andra Mariko elizpean eta Santa Ana plazan egongo dira, 17:00etan. Horrez gainera, informazioa gura duten herritarrek koalizio moreak Durangon duen egoitzara jo dezakete, Goienkale kaleko 13. zenbakira: 10:30etik 13:00etara goizetan eta 18:00etatik 20:30era arratsaldeetan.



# Elkarte gastronomikoek garbitasun eta segurtasun baldintzak bermatuta zabaltzen dituzte berriro euren ateak Durangaldean

Batzuek alarma egoera amaitu arte itxaron dute, eta zenbait elkarte itxita daude oraindino



Durango Napar elkartearen, bazkaltzeko eta afaltzeko ordutegiak mugatu dituzte.

**DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI**

Maiatzaren amaieran baimendu zuten txoko edo elkarte gastronomikoak zabaltzea, bigarren fasea indarrean sartuta. Hori bai, segurtasun eta garbitasun baldintzak bermatuta eta %50eko aforoagaz. Durangoko Napar eta Abadiño Zalduerreka elkarteek, adibidez, orduantxe zabaltzen dituzten ateak.

**Napar eta Zalduerreka elkarteek bigarren faseko edukiera eta segurtasun neurriak eutsi diete**

Bestetik, Iurretako Amezketondon itxaron egin dute alarma egoera amaitu arte; eta Iurretako Montostek oraindino ez zabaltzea erabaki du. Denek zuhurtziaz jokatu gura dute, zalantza egoera dela-eta.

Normaltasun berrian sartuta, orain arteko segurtasun eta edukiera neurriekin jarraitzen dute, bai Napar elkartearen bai Zalduerrekan. Napar elkartearen Jon Odiagak azaldu duenez, kontu handiz eta apurka dabilta martxa hartzen: "Jendea tentuz dabil. Zalantza asko ditugu denok". Zalduerrekan ere hasi dira bazkideak joaten. Aintza-

ne Mendiolaren ustean, "baldintzak bermatzea ezinbestekoa da bazkideak lasaitzeko".

Bazkari-afarien ordutegia mugatu dute Naparren, garbiketa eta desinfektatze lanak bermatzeko. Eguenetik domekara dago zabalik, eta gehienez lau talde egon daitezke aldi berean. "Sukaldean lau lagun egon daitezke bakarrik, maskaragaz", dio Odiagak. Bestalde, Zalduerrekan egunak bereiztu dituzte, batzuk bazkaltzeko eta beste batzuk afaltzeko; eta, hartara, garbitasuna bermatzeko. Gehienez lagun bi egon daitezke sukaldean, maskaragaz.

**Zabaltzen barik**

Amezketondon 40 lagun batu daitezke, gehienez, jatorduko; eta 20 laguneko taldeak izango dira asko jota. Garbitasuna eta desinfekzioa bazkideen ardura izango da. Sukaldean lagun bat egongo da taldeko, beti maskaragaz. Aisialdirako elementu komunak ezin dira erabili, Virginia Rodriguezek azaldu duenez.

Ikusita zaila izango zela segurtasun, garbitasun eta aforo neurriak betetzea, Montoste elkarteak maiatzaren txokoa itxita mantentzea erabaki zuen. Egoeraren bilakaeraren arabera zabaltzeko dute, Eneko

## Guardia Zibilak tiroz hil zuen José Emilio Fernández gogoan izan dute Elorrian

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Martitzenean 42 urte bete ziren Guardia Zibilak José Emilio Fernández tiroz hil zuenetik. Elorrian ekitaldia egin zuten gertaera gogoratzeko.

1978an, José Emilio Fernández 16 urteko elorriarra Elorriora bidan zihoan, lagunekin auto-stop eginda. Auto gidariak ez zuen ikusi Guardia Zibilak Atxondan ipinitako kontrola, eta Guardia Zibilak autoa tirokatu zuen. Fernandezek hainbat tiro jaso zituen eta bertan hil zen. Guardia Zibilaren bertsioaren arabera, autoak alde egin

zuen, kontrolean gelditu barik. "Ez zegoen argirik, gaua zen, dena ilunilun zegoen eta kontrola seinalezatzen barik zegoen. Gidariak ez zuen ikusi eta tirokatu egin gintuzten", azaldu dio ANBOTOrri José Felix Mariasek. Marias autoan zihoan.

Ekitaldira joandakoek esan zuten ordua dela justizia egiteko. "Bertsio ofizialean esan zutenaz gainera, heriotza-ziurtagirian ipintzen du bihotza gelditu zitzaionako hil zela José Emilio. Ordua da egin zutena onartu eta justizia egiteko", esan dute.



Besteak beste, Fernandez senitartekoak, José Felix Marias lekukoak eta udal ordezkariak parte hartu zuten oroitzapen ekitaldian.

C E R A M I C A S  
**MACOBER**

**ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Elorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 [www.macober.com](http://www.macober.com)

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda [info@hitzliburudenda.com](mailto:info@hitzliburudenda.com)

#salduenak

**MIÑAN** 1<sup>er</sup>  
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

**AITAREN ETXEA** 2<sup>er</sup>  
Karmele Jaio (Elkar)

**IBAIERTZEKO IPUINA** 3<sup>er</sup>  
Oihane Amantegi (Elkar)

WhatsApp-[ez eskatu](#), Bizum-[ez ordaindu](#) eta etxean jaso eskaera



## Gorka Lupiañez preso durangarra Logroñoko espetxera hurbilduko dute

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

Espetxeetako Instituzioek astelehenean ANBOTOrri baieztatu ziotenez, Gorka Lupiañez preso durangarra Logroñoko espetxera lekualdatuko dute. ANBOTOk Lupiañezen senideekin berba egin zuen, eta lekualdatzearen berri prentsaren bitartez eduki dutela adierazi zuten.

Lupiañez Topaseko (Salamanca, Espainia) espetxean dago preso, Durangotik 400 kilometro baino gehiagora. Durangarra 2007an atxilotu zuen Guardia Zibilak, ETAko kide izatea egotzita, eta espetxean dago harrezkero. 2019an bete zuen zigorra, baina Auzitegi Nazionalak beste auziategaitik epaitu zuen. Sententzian 48 urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

## Espainiako Gobernuak baimendu egin du Durangoko tren geltokiari buruzko herri galdeketa

"Gura baino beranduago" heldu bada ere, Durangoko Udalak "pozik" hartu du Espainiako Gobernuaren erabakia

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Ministroen kontseiluak martitzenean eginiko batzarrean hartu zuen erabakia: Durangoko Udalak PERI 1 proiektua gelditzearen alde dauden galdetu ahalko die herriarrei.

Azaroaren 27an onartu zen, Durangoko udalbatzan, tren geltokiari buruzko galdeketa egiteko baimena Madrilgo ministroen kontseiluari eskatzea. Ordutik, erantzunaren zain egon dira.

### Arduradunak "pozik"

Udaleko gobernu taldeak prentsaurreko batera deitu zuen erabakia baloratzeko. "Gura baino beran-

duago" heldu bada ere, "pozik" daudela adierazi zuten. Datozen egunetan Eusko Trenbide Sareagaz eta Erabaki plataformagaz biltzeko asmoa dutela iragarri zuten udal ordezkariak. "Denen iritzia kontuan hartu gura dugu", azaldu zuen Ima Garrastatxu alkateak.

Agerraldian Erabaki plataformaren jarduna azpimarratu zuten. "Prozesu parte-hartzaileak politikagintza berria dira. Herri hobea egiten lagunduko digute, gainera", azaldu zuen Julian Rios alkateordeak. Bestelako eragileekin batu eta gero, udal teknikariak galdeketa diseinuaz arduratuko dira. Epeak zehaztu ez arren, hileak



Erabaki plataformak adierazi du "oso berri ona" dela galdeketa egin ahal izatea.

iraungo duen lana izango dela adierazi zuten udal ordezkariak.

EAJk ere berri ontzat hartu du Espainiako Gobernuaren erantzuna. Hala ere, "berme juridikoak" izango dituen galdeketa proze-

sua martxan ipintzea eskatu dio gobernu taldeari, eta herritarrek "une oro" informatzea.

Erabaki herri plataformak "poztasuna" agertu eta "oso berri ona" dela adierazi zuen.

## Lur-jausiaren ondorioz itxita dauden A-8ko erreaiak aste bi barru zabalduko dituzte

**ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO**

Egunotan, Eusko Jaurlaritza segurtasun dike bat egiteko lanak amaitzen dabil A8aren gaineko aldean. Horrez gainera, Bizkaiko Aldundiko Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko diputatua den Imanol Pradalesek asteon adierazi du errepidean bertan ere hasiko direla lanean.

Lan horiek "zazpi egun irautea estimatzen da", Aldundiko ohar baten arabera. "Beraz, Donostiarako erreaiak ekainaren 29tik 30erako gauean zabaldu daitezke berriro", iragarri dute. Egun horretatik aurrera, errepidearen beste aldean hasiko dira lanean, Bilborako bidean, eta beste aste batean iraungo dute. Lanak amaituta, uztailaren 7an zabalduko dituzte erreaiak.



Joan zen zapatuan bertso saioa egon zen lurretan, lurreta Plazaratuk antolatuta.

## 500 herritarrek eta 27 elkartek bat egin dute Abadetxea erabiltzeko eskariagaz

Iurreta Plazaratu dinamika jakinarazi duenez, gotzaindegitik erantzuna jasotzeko zain daude orain

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Badira urte bi Iurreta Plazaratu dinamika lanean hasi zela, herriko plazarari bizia emateko asmoz. Asotariko ekitaldiak garatu dituzte harrezkero. Joan zen zapatuan antolatutako bertso saioa da lan horren azkenengo adibidea. Antolatzaileek azaldu dutenez, saioak arrakasta eduki zuen eta jende ugari batu zen, segurtasun neurriak zainduta.

Bertso saioan, konfinamendua aurretik hasitako sinadura bilketaren emaitzak eman zituen Iurreta Plazaratuk. Guztira, 500 herritarrek eta 27 elkartek sinatu dute gotzaindegiari egindako eskaria.

"Oso pozik" daude sinadura bilketak izandako harreragaz, eta eskerrak eman gura izan dizkiete ekimenari babes eman diotenei.

**Iurreta Plazaratu  
dinamika "oso pozik"  
dago sinadura bilketak  
izandako harreragaz**

Gotzaindegitik erantzuna jasotzeko zain daude orain. "Ea laster dugun aukera abadetxea herrira zabaltzeko eta ekintza soziokulturalerako erabiltzeko".

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko ekainaren 26a  
18. urtea - 813. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**  
PSE: 93/18

 **mam** ginekologia  
zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO  
**T 946 05 53 04**  
info@mamginekologiadurango.com  
www.mamginekologiadurango.com

**HITZORDUA ESKATU**  
**674 322 360**

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO**

**944 657 132 - 686 906 374**

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16



pablo zubizarreta  
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D  
DURANGO**

**pzubizarreta@gmail.com**  
**946 550 049 - 695 784 963**

 **Optometria**  
PSE: 162/13

**Naia  
Zabala  
Azumendi**  
11587 kol. zk.



**keinu**

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio
- neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
**www.keinuoptometriazentroa.com**

 **Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ  
Podologia  
klinika PAUSO**

**Goitz Murua**  
kol. zbk. 147  
**Ainhoa Elorza**  
kol. zbk. 238  
**Nerea Rodriguez**  
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio  
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

**Telefona: 946203630**  
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**  
PSE: 145/13



**clínica dental hartz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara  
adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago,  
den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -  
48200 Durango }

**Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194**  
**454uecdental@gmail.com**

 **Odontologia**  
PSE: 112/13



**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO**  
**Tel.: 946 812 200**

 **Estetika**  
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**www.medicinaesteticaDurango.com**

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa  
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren  
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

**Txatxiena, 6  
48200 - DURANGO**  
**Tel.: 946 810 387**

 **Psikologia**  
PSE: 62/11



**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK


**Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO**  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

 **Pedagogia**  
PSE: 63/63

 **UGATZ**

**UMEAREN  
GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra,  
psikomotrizitatea,  
fisioterapia, logopedia

**Juan Olazaran, 1 behea  
DURANGO**  
ugatz@hotmail.es  
**944 668 370 - 615 782 090**



**Profesionalik  
onenak zure  
zerbitzura!**



# “EHGAM Durangoko Azoka batean sortu izana izugarri gustatu izan zaigu beti; oso inportantea izan da guretzat”

Durango funtsezko herria da Euskal Herriko LGBT mugimenduaren historian. Bertan ernaldutako zen Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua, 1976an



**Imanol Alvarez**  
EHGAMeko sortzailea eta  
LGBT mugimenduko kide  
historikoa

**Bilbo | 1956**

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Imanol Alvarez Euskal Herriko LGBT mugimenduko militanterik ezaguenetarikoa da. 70eko harmakadan, borrokaren lehenengo lerrora salto egin zuen eta ordutik hona ez du atzerapausorik egin. EHGAM taldearen sortzaileetarikoa bat izan zen eta bertan dabil gaur egun ere.

Gauza bat eskatu gura nizuke: esaldi bat botako dizut eta esaidazu esaldiagaz bat zatozen ala ez: "Durango da Euskal Herriko LGBT mugimenduaren sorburua".

Oso neurri handian, bai, halaxe da. Askok ez dute historia ezagutzen,

eta harriduraz hartzen dute datu hori. Pentsatzen dute LGBT mugimenduak hirietan sortu ohi direla, eta, horrenbestez, Euskal Herrikoa Bilbon sortu zela. Erakundetzea edo dena delakoa, bai, Bilbon egin zen, baina Durangon sortu zen asmoa.

**Nolatan ipini zen Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduaren (EHGAM) lehenengo harria Durangon?**

1976ko Euskal Liburu eta Disko Azokan izan zen. Azaroa zen, orduan azaroaren hasieran egiten zen azoka, merkatu plazan. Hainbat lagun topatu ginen han. Gaiaz berbetan hasi ginen eta han sortu

zen ideia. 20 bat urte nituen. Uste nuen ideiak ez zuela arrakastarik izango, ez zuela aurrera egingo. Baina ahalegina egin genuen, eta, egia esan, oso erraz egin zuen aurrera. Kontaktuak egiten hasi gi-

**“Borroka guztiak gure egiten genituen, eta gure borroka besteena ere izatea gura genuen”**

nen, elkarregaz harremanetan ipintzen. Eta, oker ez banago, 1977ko urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran EHGAM publikoki aurkeztu genuen, Bilbon.

**Frankismoa bero-bero zegoen garai hartan.**

Esperientziarik bako gazteak ginen. Informazio eta jakituria gutxi genuen. Gauza gutxi heltzen zen kanpotik. Baina, zorionez, hainbat herrialdetan 'Gay Liberation Front' zirelakoak sortzen zebiltzala jakin genuen. Horrelako zerbait eratzea genuen buruan, baina ez genekien nondik jo. Zurrumbiloa sekulakoa zen. Politikoa gehienbat, baina baita soziala ere. Zurrumbilo hark irentsi egin gintuen eta konturatu ginenerako tankera guztietako mobilizazioetan sartu ginen. Batzuek ez zuten ulertzen. "Zuek gay mugimendua bazarete, talde lez zergaitik parte hartzen duzue manifestazio ekologista batean edo amnistiaren aldeko mobilizazio batean?", esaten ziguten. Guk argi genuen bestelako gizarte bat gura genuela. Justuagoa, berdintzaileagoa. Borroka guztiak gure egin genituen, eta gure borroka besteena ere izatea gura genuen.

**Eta hara non, testuinguru nahasi hartan Durangoko Azokak batu zintuzten.**

Kasualitatea izan zen, baina EHGAM Durangoko Azokan sortu izana izugarri gustatu izan zaigu beti. Oso inportantea izan da guretzat. Euskal kutsua du, eta hain zuzen euskal kutsua eman gura genion mugimenduari. Hasiera hoberik ezin izan! Gainera, horrelako mugimenduak hiriburuetan sortzen dira normalean, baina, zorionez, herri batzuetan ere egon izan dira taldeak; bai EHGAM taldeak, eta baita, azken urteotan lez, beste izendapen bateko taldeak. EHGAMek taldeak izan ditu Durangaldean, hainbat alditan.

**Aipatu duzu EHGAMek talde propioak izan dituela Durangaldean. Noiz sortu ziren?**

Mugimendua hasi eta berehala talde bat sortu zen, hainbat hila-betean funtzionatu zuena. Gero, bere kabuz agortu zen. Kideetarikoa batzuk Bilbora joan ziren bizitzera, eta, batek daki, beste batzuk nekatu ere egingo ziren beharbada. Ez dut gogoan. Urteetan ez zen EHGAM talderik egon Durangaldean, harik eta 90eko hamarkadan bigarren talde bat sortu zen arte. Hainbat urtean funtzionatu ondoren, desegin egin zen. Gaur egun,

**“Borroka antifaxista oso inportantea izan da guretzat. Antifaxistak gara, beste ezer baino gehiago”**

Durangaldean bada beste LGBT talde bat. Ez da EHGAM, baina lan egiten segitzea da inportanteena. Taldeak Kili-Kili du izena.

**EHGAMek Durangaldean utzitako beste arrasto bat Koldobika Jauregiren eskultura da. Landako Erakustazokaren ondoan dago eta frankismoak jazarritako LGBT kideak omentzen ditu.**

2009an inauguratu genuen oroitarria, eta esandako guztiagaitik ipini genuen hemen. Ez dugu ahaztu behar borroka antifaxista oso inportantea izan dela guretzat. Antifaxistak gara, beste ezer baino gehiago. Gernikako azoka batean ekitaldi bat egin genuen behin, horregaitik hain zuzen ere, Gernikak antifaxismoagaz duen loturagaitik. Eta, jakina, Durangoko bonbardaketak ere badu garrantzia horretan. Beste arrazoietarikoa bat izan zen oroitarria bertan ipintzeko.

## 2020. URTEKO HEZKUNTZAGATIKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Iurretako familiei 2019/2020. ikasturtea ardurapen dauden seme-alaben edo adingabeen hezkuntzako gastu orokorretarako diru-laguntzak emateko dieldia

Aurkezteko azken eguna uztailaren 13a

Informazio gehiago 94 620 03 42 telefonon, Ibarretxe Kultur Etxean edo [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) web orrian



[saltsan.com](http://saltsan.com)

**Egoera berezi honetan  
MAKALLAU SALTSAN  
KATERIN zabalik dago!**

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoa



## “Apurka-apurka goaz; epe luzera begira, Durangon aldaketa bat igartzea gura dugu”

Kili-Kili da Durangaldean dagoen LGTB elkarte bakarrenetarikoa. Elkarte gaztea da, baina gogotsu dago aurrera egiteko



**KILI-KILI • EKAITZ HERRERA**  
**Eider Lauzirika (Durango, 1997) eta Jon Markel Carrillo (Durango, 1997)**  
Kili-Kili elkarteak kideak dira.

**Orain urtebete jaio zen Kili-Kili. Zein da orain arteko ibilbidearen balorazioa?**

**Eider Lauzirika:** Ofizialki orain urtebete hasi ginen arren, badira urte bi honegaz hasi ginenetik. Herri-tarrek eta instituzioek elkartean sinesten dutela ikusi dugu. Durangon ez zegoen ezer, eta oso pozik gaude orain artekoagaz. Ez genuen horrelako harrerarik espero.

**Jon Markel Carrillo:** Beharrian bati erantzuteko sortu genuen elkartea. Ikusten genuen hezkuntza arloan heterosexualitatea zela ardatza, eta

bestelako sexualitateak bazterrean geratzen zirela. Ugalketaren ikuspegitik kontatuta dago dena, gizon-emakume harremanetik. Ahaztu egiten dira bestelako genero identitateak eta sexualitateak. Ikuspegi zabalago bat eskaini gura genuen.

**E.L.:** Heziketa-gaiak lantzetik abiatu gura dugu, apurka-apurka esparrua zabaltzen joateko. Eta ez bakarrik umeei. Gurasoei, irakasleei edo ikastetxeetako langileei lanean gabiltza.

**“Heziketa-gaiak lantzetik abiatu gura dugu, apurka-apurka esparrua zabaltzen joateko”**

**Zeintzuk izan dira orain arte antolatutuzuen ekintzak?**

**E.L.:** Iaz, ekainaren 28ko ekitaldiak antolatu genituen. Santurtziko jaietako pregoilari izateko gonbidatu gintuzten. Hitzaldi askotan

parte hartu dugu eta Jesuitak ikastetxeagaz bideo bat egin genuen maiatzaren 17rako, LGTBfobiaren aurkako Nazioarteko Egunerako. Apurka-apurka goaz. Epe luzera begira, Durangon aldaketa bat igartzea gura dugu. Azken finean, gura zein ez, Durango nahiko kontserbadorea da. Oraindino zailtasunak eta traumak ikusten ditugu.

**Zelan zaudete antolatuta?**

**J.M.C.:** Urte osoan zehar lan egiten dugu eta hainbat elkartegaz dugu hartu-eman. Sare sozialetan ere hainbat lanketa egin dugu konfinamenduak iraun duen bitartean.

**E.L.:** Gure batzarrak zabalak dira. Gura duena etor daiteke. Instagramen [kili\\_kili\\_asoiazioa](#) kontua dugu. [kilikili.asoiazioa@gmail.com](mailto:kilikili.asoiazioa@gmail.com) helbidera ere idatzi daiteke.

**Zelan ospatuko duzue ekainaren 28a, Gay eta Lesbianen Harrotasun Eguna?**

**J.M.C.:** Adierazpen-bideo bat egingo dugu herritar eta eragileekin. Tabernek bat egingo dute gugaz eta ostadar banderak ipiniko dituzte Goienkalen.

## LGBT mugimendua Durangaldean: memoria historikorako datu batzuk

**LGBT MEMORIA • EKAITZ HERRERA**

LGBT mugimenduak aspaldidanik utzi du arrastoa Durangaldean. Oharkabea pasatu da sarri, eta, zeharka bada ere, isilarazia ere izan da batzuetan. Mugimenduak eskualdean utzitako datu gutxi batzuk baino ez dira hauek, memoria historikoa lantzea ahalbidetzen dutenak.

**EUBAKO BILTZARRAK**

Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduak Markina-Xemeingo baserri batean ekin zion batzarrak egiteari, baina Eubako (Zornotza) Goitia baserrian egin zituen bere lehenengo biltzar ofizialak. 1979an egin zuen lehenengoa, eta 1981ean bigarrena.

**KOMENTUKALEKO PISUKIDE HAIK**

EHGAMek bere egitura propioa

izan du Durangaldean. Hainbat aro izan ditu. 1976 inguruan izan zen lehenengoa; 1995etik aurrera, bigarrena. Ordu hartan, Durangoko Komentukaleko etxe batean bizi ziren hiru pisukidek Durangaldeko EHGAM birsortzea pentsatu zuten. Hainbat kide batu ziren mugimendura, baina talde motorea bost kidek osatzen zuten: neska bik eta hiru mutilek. Lau urteko aktibismoa izan zen haiena. Fanzine edo argitalpen bat ere utzi zuten: Lesgay Barri.

**JAIK ETA KULTURA, ELORRION**

‘Jaia bai, borroka ere bai’, dio lema ezagunak. Bada, Durangaldeko EHGAMek horixe egin zuen Elorrion. 90eko hamarkadan hainbat zinema ziklo eta bertso saio antolatu zituen Ateneon eta Arriola

antzokian. Garaiko aktibistek ondo gogoan dituzte Ateneon muntatutako jaiak. Bertakoa izan zen Durangaldeko lehenengo LGTB txosna.

**FRANCISEN ALDE ABADIÑON**

1979ko ekaina. Abadiñoko Udalak elkartasuna adierazi zion Errenterriko Udalari. Eta zergaitik adierazi zion elkartasuna? Bada polizia batek Francis hil zuelako tiroz, hango Apolo dantzalekuan. Eta nor zen Francis? Bada, Errenterian lan egiten zuen eta han bizi zen trabestia. Hilketak hark Euskal Herriko LGTB komunitatea sumintzea eragin zuen. Istiluak eta greba orokorrak egon ziren hurrengo egunetan. LGTB kide askok protestara irten zuten, lehenengoz publikoki.



Francisen oroimenezko zebra-bidea Errenterian.

# GAER

## DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# ALDEKOA-OTALORA

## iturgintza

**BEROKUNTZA - AIREA - GASA**  
**INDUSTRI MANTENTZEA**

[info@aldekoaotalora.com](mailto:info@aldekoaotalora.com)

Zubiurre, 8 IURRETA

**946 202 768**

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

**944 071 791 - 692 859 779**



# Mozorro Eguna, paella jana, Mocker's-en kontzertua eta bertso afaria uztailaren 27tik 29ra Atxondon, Apatamonasterioko jaietan

Apatamonasterioko jai batzorde konfinatuak egitaraua antolatu du jaiak ospatu eta itxialdi osteari ongi etorria emateko

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon jaietan murgilduko dira Atxondon. Jai batzorde konfinatuak egun biko egitaraua antolatu du Apatamonasterioko jaiak ospatzeko eta itxialdi osteari ongi etorria emateko. Hori bai, hainbat neurri ipini dituzte segurtasuna bermatzeko.

Egitarauari dagokionez, zapa-tuan, ekainaren 27an, Mozorro Eguna ospatuko dute jaien hasieran. Gaia COVID-19a izango da. 11:00etan, txistulariek alaituko dituzte herriko kaleak. Ondoren, 12:00etan, pregoia egongo da eta txopo txikia altxatuko dute. 14:00etan, auzoen arteko paella bazkaria egingo dute. Arratsaldean, 18:00etan, umeentzako antzerki musikatua eta kontu kontzertua egongo dira. Eta Mocker's musika talde durangarraren kontzertuagaz emango diote amaiera egunari.

Astelehenean, ekainaren 29an, Meri, Mari eta Lari ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, eta gero,

19:00etan, txokolatada egingo dute. Bertso afariagaz (talo jana) emango diete amaiera jaiari. Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Onintza Enbeita arituko dira bertsoan.

**Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hainbat segurtasun neurri hartuko dituzte**

Jai batzordeko kideek esan dutenez, hainbat segurtasun neurri hartuko dituzte. Esaterako, paella bazkaria kalean egingo dute frontoian egin beharrean, segurtasun tarteari betetzeko. "Hogei pertsonako multzoak egingo ditugu, eta mahaiak heritik sakabanatu. Horrela, jende pilaketak ekidingo ditugu", esan dute jai batzordeko kideek. Hori ez da neurri bakarria izango. Gainerako ekitaldietan ere hartuko dituzte neurriak.



Iaz jendetza batu zen jaien hasierako ekitaldian.



Jendetza batzen da Eixuk antolatzen duen azokan.

## Eixuk antolatuta, artisau eta sortzaileen azoka egingo dute uztailaren 5ean Elorrion

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, hartu beharreko segurtasun neurri guztiak hartuko dituzte azoka egiteko

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eixu artisau elkarteak antolatzen duen azokaren laugarren edizioa egingo dute uztailaren 5ean Elorrion. Urarka kalera bertaratzen diren herritarrek hainbat sortzaileen lanak ikusi eta erosteko aukera izango dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 23 sortzailek parte hartuko dute guztira, eta hartu

beharreko segurtasun neurriak hartuko dituzte.

**Urarka kalean Idoia Gamero Elorrioko ipuin kontalariaren saioaz gozatu ahal izango da**

Esate baterako, karpantik karpata 3 metroko segurtasun tartea egongo da, eta, gainera, saltzaileek maskara erabili beharko dute une oro. Horrez gainera, postu bakoitzean hidrogela egongo da eskuak garbitzeko. Azokako ibilbide osoan zehar ere ipiniko dute hidrogela.

### Ipuin kontalaria

Azokaz gainera, aurtengo edizioan ipuin kontalari baten ikuskizunaz gozatzeko aukera ere eman gura diete herritarrei. Idoia Gamero elorriarra da ipuin kontalaria eta Urarkan arituko da. Gamerok saio bi eskainiko ditu. Lehenengoa 11:00etan izango da eta bigarrena, 12:30ean.

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI  
BIODEGRADAGARRI  
ETA BIRZIKLAGARRIAK



[www.soul-cemosa.es](http://www.soul-cemosa.es)



**cemosa**

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)  
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99







## MENDIAN

- Irudi honetan ikusiko dituzun hainbat elementu ez genituzke mendian inoiz aurkitu beharko. Bederatzi dira guztira. Zeintzuk dira?
- Animalia hauen artetik zeintzuk agertzen dira eskuineko irudi handian?




- Bestalde, bada beste animalia bat paisaian, goiko koadroan jasota ez dagoena. Zein da?




## ZORTZI ALDEAK

Aurkitu bi irudi hauen artean dauden zortzi aldeak



## Esaera



### Txerri gosetiak...

- ☐ ... potoloak izaten ditu titiak
- ☐ ... inguruan beti euliak
- ☐ ... ezkurra amets
- ☐ ... amets bitxiak
- ☐ ... lotan ematen du eguna
- ☐ ... ezertarako denborarik ez
- ☐ ... lotan jaten du
- ☐ ... platera hutsik
- ☐ ... inurriak lagun



# PAREAK BAI!

Arriskutsuak ala onuragarriak izan, benetan xelebreak dira mikrobio guztiak. Forma harrigarri eta bitxiak erakusten dituzte.

Ondoko irudian aurkitu bikoterik osatzen ez duen 'xomorrotxo'.



Ondoko lauki honetan, marraztu eta margotu bakterio zintzo bat.


Eta beste lauki honetan, birus gaizto bat.



# Itzala




Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artetik?





# Arrotza

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?



Etiketarik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria



dordoka



tutua edo biberioia



erlea

## Zuhaitzeko etxola

Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:


● Txiklea ● Pelloziriren ordenagailu eramangarria ● Bi tximeleta ● Eskuargi bat ● Bi sagu ● Barraskilo bat ● Igela ● Plastikozko ur botila ● Hontza ● Txerrikumea ● Sugea





Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu  
amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

## Otordua













## Urratsez Urrats

Lagundu detektibeari arrastoa jarraitzen.  
Labirinto honetan, giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu,  
ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean.



## Dadua


Zein kubo  
aterako zaio  
Maripurtzili  
sei aldeak  
tolestu eta  
itsasten dituenean,  
A, B, C edo D?






# Gameluaren itzala

Zein da, zortzi itzal hauen artean, erdian dagoen gamelu xelebreami dagokiona?



## BiKiak

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite, baina ez dira berdinak. Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak.







Uztailaren 3tik aurrera, **ANBOTO** astekaria ohiko moduan banatuko dugu berriro etxeetan.

Hala ere, okindegi, elikagai denda, estanko edota kioskoetan banatzen jarraituko dugu, azken asteetan egin dugun moduan.

Eskerrak eman gura dizkiegu, larrialdi egoera honetan, **ANBOTO** astekariaren banaketa- leku izan diren guzti-guztiei (35 banaketa puntu). Herritar askok leku horiei eskerrak jaso ahal izan dute gertuko informazioa, euskaraz, doan.

Aurrerantzean, **ANBOTO** astekaria etxean jaso gura baduzu edo, jaso arren, zure datuak eguneratu gura badituzu, ipini hartu-emanen ANBOTOGaz:

☎ 94 681 65 58 eta 📞 665710 931



# Jaiak kalera atera dituzte Berrizen, normaltasun berrira egokituta eta segurtasuna zainduta

Berrizko jai herrikoien aldeko lantaldeak antolatuta, atzo hasi zituzten jaiak, eta domekara arte iraungo dute

**BERRIZ • JOSEBA DERTEANO**

Normaltasun berria indarrean sartu denetik, egitarau birtuala alde batera utzi eta Berrizen lehenengoak izan dira jaiak kalera ateratzen. Herriko hainbat elkarte eta taldek egindako ahaleginari eskerrak izan da. Hasiera-hasierako lehenengo batzarretan, internet bidezko jaiak planteatu zituzten, baina egoera aldatzen joan den

## Ekimenetan jesarrita eta maskarak ipinita egotea dira segurtasun neurrietarikoz batzuk

neurrian jaiak errealitate horretara egokitzen joan dira, antolatzaileek azaldu dutenez.

Honako elkarte eta taldeak aritu dira elkarlanean: Hiltzegixe Berrizko Gaztetxe, Berrizko Gazte Asanblada, Oka Elkartea, Umerri eta Azeri Gorriak.

Hainbat neurri hartu dituzte segurtasuna bermatzeko: ekimenetan parte hartzeko, aurretik eman

behar izan da izena; ekintza guztietara jesarrita egon behar da, eta maskara ipinita; ekimenek aforo mugatua izango dute.

## Askotariko ekimenak

Egitarauari dagokionez, Eneritz eta Dana eta Olinda taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, 20:00etan, eskolako beheko patio estalian.


Zapatuan, dantza eta bertsoak izango dira batez ere protagonista, eskolako beheko patioan. 18:00etan, Slipery eta Sliperitos, Ethan Lopez eta Feel the Sound taldeek dantza ikuskizuna eskainiko dute, eta 19:30ean, Aritz Katariñen, Irune Basagoitiren eta Leire Vargasen bertso saioa hasiko da.

Azkenik, domekan, 18:00etan, umeentzako ipuin kontalari saioa hasiko da eskolako goiko txapel berrian. Aurretik izena emandakoen artean ikusminik handienetarikoa piztu duen ekimena da, antolatzaileen esanetan.

Ekimenetan postu bat ipiniko dute kamisetak, poltsak eta zapiak saltzeko, eta batzen duten dirua gastuei aurre egiteko erabiliko dute.



Aurtengo jaietan ikusiko ez diren irudi bi: ez da ez txosnarik ez dantza saiorik egongo.



PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)



PRODUKTU EKOLOGIKOEN ESKAINTZA



# T.A. TORNILLERIA AMEZUA S.A.

## TORLOJU eta PIEZA BEREZIEN FABRIKAZIOA

Geltoki, 13 - 36 PK - Tel.: **946 824 059** - Faxe: **946 827 980** - 48240 BERRIZ (Bizkaia)  
[www.tornilleria-amezua.com](http://www.tornilleria-amezua.com) - [jamezua@tornilleria-amezua.com](mailto:jamezua@tornilleria-amezua.com)



**VCG DECOLETAJE**  
Vda. de Cándido Gastelurrutia, S.A.

946 824 012 info@vcg-decotetaje.com  
946 827 978 www.vcg-decotetaje.com  
Eitua Industrialdea, 20 48240 Berriz, Bizkaia



# “Guretzat garrantzitsua zen lotuta zeuden kultur ekimenei eustea”

Beste modu batera izango bada ere, txosna batzordeak Zaldibarko jaiak antolatu ditu 2020 berezi honetarako

**ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO**

**Jaimorfosia izango da aurten Zaldibarko txosna batzordeak bertako jaiak ospatzeko aukeraturiko leloa. Koronabirusaren agerpenak guztiz baldintzatutako jaiak izango dira, eta beste modu batekoak ere bai. Uztailaren 2an hasi eta 5era arte iraungo dute, eta Ismene San Martin Lasuen (Zaldibar, 1993), Nerea Lizarralde Sampedro (Zaldibar, 1994) eta Pello Zabarte Narbaiza (Zaldibar, 1997) txosna batzordeko kideek aitortu dutenez, inoiz baino gogoeta handiagoa egin behar izan dute jaiok antolatzeke. Gaztetxeko, Dominika talde feministako eta Er-naiko kideak ere badira.**

**Zer da Jaimorfosia?**

**Pello Zabarte Narbaiza:** Hiru eragilek osatzen dugu txosna batzordea, eta berrasmatu egin behar izan ditugu jaiak. Oinarri batzuk aldatu eta segurtasun neurri guztiekin sasoi berrietara egokitu behar izan ditugu. Esate baterako, gaue-tan ez da ekitaldirik egingo, baina jai herrikoiek dituzten bestelako ezaugarri batzuek bere horretan jarraituko dute: aldarrikapena, komunitatearen indartzea... Azken hileetan indartu diren beste balio batzuk erdigunean ipini gura izan ditugu; zaintza, esaterako. **Ismene San Martin Lasuen:** Askok eztabaidatu dugu, jaiak egin ala ez. Aurrera egitea erabaki genuenean, koherentziagaz eta zentzuagaz izan behar zela erabaki genuen. Txosna batzordea bera da lehenengo interesatua gauzak ondo egiteko. Hasieratik baztertu

genuen orain arteko eredua duten jaiak.

**Ez zen erraza izango jaiak ospatzeko erabakia hartzea.**

**Nerea Lizarralde Sampedro:** Uste dugu herriak merezi zuela jai batzuk antolatzea. Egon garen moduan egotetik gatoz, eta pentsatu genuen aukera ona zela herrian bertan kon-

“

**Barikuan Suaren eta Luhartzen kontzertua egongo da; zapatuan, herriko musikariena”**

—

tzertu batzuk edo kultur jai batzuk antolatzea, eta disfrutatzea.

Prozesu honen hasierako eztabaidetan, inor gutxik pentsatuko zuen horrelako jai batzuk ospatuko zirenik. Askok hausnartu behar izan dugu, eta berrantolatu. Garrantzitsua da jaiak mentalitate berri batez gozatzea.

**I.S.L.:** Ez da egun batetik bestera aldatutako jai eredu bat. Prozesu bat izan da, eta aukerak zeintzuk diren ikusten joan gara bidean.

**Zelako jaiak aurreikusten dituzue?**

**P.Z.N.:** Jai herrikoien berrasmatez honetan, kultura ardatz lez hartu gura izan dugu, sektore hau, gaur gaurkoz, krisi ekonomikoa gehien sufritzen dabilen sektoreetariko bat delako.

**I.S.L.:** Luhartzekoek eskertu digute eurekin genuen konpromisoari



eustea. Haiek, gure moduan, beregokitzapenak egin behar izan dituzte. Zapatuan gazte olinpiadak egin ohi izan dira. Orain, aukietan egin beharko ditugu olinpiada horiek, adibidez.

**N.L.S.:** Urtero moduan antolatuko ditugu jaiak, auzolanean eta herriko jendearen artean. Aurten, barrako txandak barik, bestelako txandak edukiko ditugu: sarre-ra-irteerak zaindu, desinfekzio txanda...

**Jaiak diru iturria izan ohi dira herri mugimenduarentzat. Ez da buruhauste makala izango antolaketa.**

**P.Z.N.:** Kasu honetan, ez diogu arreta berezirik eskaini. Hasieratik asumitu genuen aurtengo jaietan ez zela dirurik irabaziko. Urtero lez, kamisetak aterako ditugu, eta

“

**Barrako txandak barik, desinfekzio txandak egin beharko ditugu aurten”**

—

horrek zeozertxo lagunduko digu. Jaien funtzioetariko bat herri mugimendua diruz hornitzea da, baina aurten ez du hori betekiko.

**Uztailaren 2an hasiko dituzue aurtengo jaiak.**

**I.S.L.:** Egutetik domekara ospatuko ditugu, betiko moduan.

**N.L.S.:** Zapatuan herriko musikari-ri egin gura izan diegu tartea.

Konfinamendu sasoian egitarau herrikoia sortu zuten zaintza sarean, eta hortik dator aukera hau.

**I.S.L.:** Herriko musikari-ri plaza hori eskaintzeaz gainera, aurretik genituen konpromisoak mantentzea garrantzitsua da guretzat. Sua eta Luhartz taldeen emanaldia lotuta genuen pandemiaren aurretik ere; garrantzitsua da horri eustea, baita urtero datozen teknikariengaitik ere.

**I.S.L.:** Txosnagunean apustu argi bat egingo dugu osasuna bermatzeko neurrien alde. Gure baliabideen arabera beti ere, baina lan-keta egin gura dugu, herritarrei neurri hauek azaltzeko, jai hauek egitearen arrazoia azaltzeko, eta baita ospatzeko eta disfrutatzeko ere.

# uxarte

SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

**ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ**  
Gutxienez 15  
laguneko taldeentzako

# clínica dental hartz klinika

b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com





Hainbat lagunek parte hartu zuten Durangoko aurkezpenean.

## Geure Durangaldea

Garazi  
Mugarza Markina  
Erizaina



### Eguraldi txarra

Albistegietako titularra baino ez dirudi orain martxoan ezustean etxe-zuloetan zokoratu gintuen itzal handiko birus ikusezin eta ezerez honek, ematen du mundu bat igaro dela ordutik. Ekaineko eguzkiak eta alarma egoeraren indargabetzeak inertziaren garamatzate, ohiko bizimodu normalaren gose garelako. Eta batzuetan, hain zuzen geure burua engainatzen ari garen kontzientzia sotilez, arduragabekeria puntu batekin ari gara jokatzeko. Baina 1947an hala idatzi zuen Camusek: "libre sentitzen ziren eta inor ez da libre izango izurriterik dagoen artean".

"Hemen barruan erlojua entzuten dut" esan eta negarrez hasi zen agure bat, abailduta. Egunean hamaika aldiz errepikatzen zuen non eta norekin hil nahiko zukeen. Bitartean, bizitzak maiz egiten zuen ihes. Eta kafesneak bandejetan hozten, euliak geratu barik ospitaleko geletan, nitriloeko eskuak izerdi hotzez, kremaileak plastiko gardenak ixten, malakoak disimuluz lausotutako betaurrekoen gometan metatzen, etxeakoak pantailetan urduri, gau osoan argiren bat piztuta eta beti baten bat lorik egin ezinik. Oraindik jendea asko akordatzeko da, oraindik nahigabe; ze uste baino hondoratuago ateratzen gara hemen.

Eguraldi txarreko gau luzea izan da, eta zer esan, hunkituta nago. Gustura egongo ote zarete gura eta merezi zenuten zeru katoliko, itsasbazter edo sagarrondoaren itzaletan. Azken hileetan pasatu denak hemen geratu garenok behartzen gaitu aurrerantzean zerbait berria egitera, gertatutako akatsak berriz errepika ez daitezen.

# Dozenaka ekitaldik kulturaz beteko dituzte Durango eta Elorrio uztailean eta abuztuan

Uda Kulturaz Blai! eta Musikaire jaialdietako egitarauak aurkeztu dituzte aste honetan

## KKULTURA • ARITZ MALDONADO

Kultura plazetarako lehenengo urratsak ematen hasiko da. Aste honetan, Durangoko Uda Kulturaz Blai! eta Elorrioko Musikaire jaialdiak aurkeztu dituzte. Jarduerak uztailean eta abuztuan izango dira. Durangokoaren kasuan, ia 100 kultur jarduerak egingo dira, eta ohikoa baino ia lau bider aurrekontu handiagoa edukiko du aurtengo, 95.000 eurokoa, hain zuzen ere. "COVID-19ak eragindako krisialdia erronka lez hartu dugu", adierazi zuen Ima Garrastatxu Durangoko alkateak. Antzerkia, musika, zirkua, bertso saioak, eta 'boluda bingoa' egongo dira, besteak beste. Guztira, 38

emanaldi. Ekuru talde durangorak diskoa aurkeztuko du, eta Markelñe antzerki taldeak *Psike* antzezlanarekin estreinatuko du.

Emanaldiak doakoak izango dira, eta segurtasun neurriak "zorrotz" betearaziko dituztela adierazi zuten prentsurrekoan. 250 lagunentzako emanaldiak izango dira, eta parte-hartzaileek jesarrita egon beharko dute uneoro. Ekitaldiak Landako eta Kurutzia ikastetxeetako patioetan eta Plateruenako terrazan izango dira.

### Museoa eta Biblioteka

Esti Albizu Bizenta Mogel Bibliotekako arduradunak eta Garazi

Arrizabalaga Arte eta Historiako Museoko zuzendariak eraikin bi hauen egitaraua "kalera ateratzearren" alde positiboa na-

**Antolatzaileek adierazi dute segurtasun neurriak betearaziko dituztela emanaldietan**

**Egitarauak, osorik, ANBOTOren webguneko agendan egongo dira ikusgai**

barmendu zuten. "Apurto egin behar da museoak eta bibliotekak espazio itxiak diren ustea", azaldu zuen Arrizabalagak prentsurrekoan. Guztira, 59 tailer eskainiko dituzte uztailean eta abuztuan. Bibliotekak eta Museoa proposaturikoez gainera, Immigrazio zerbitzuak eta Denboraren Bankuak elkarlanean proposaturikoak ere badaude.

### Musikaire "berezia"

Koronabirusaren agerpenak Elorrioko udako Musikaire jaialdia ere guztiz baldintzatu du. Aurtengo, Elorrioko jaialdiak egitarau "berezia" izango du. Antolatzaileek gertuko artisten emanaldiak lehenetsi gura izan dituzte. "0 kilometro Musikaire izango da aurtengoa". Besteak beste, Anari, Gari & Maldanbera eta Oreka Tx artisten kontzertuak egongo dira. Durangaldetik, Barsanti konpainiak *Kale Gorria* ikuskizuna aurkeztuko du, Gansok *Panoli kabareta*, eta Miren Amurizak eta La Pulgak *Gorria* ikuskizuna eskainiko dute Elorrioren. Ekitaldiak San Roken edo Aldatsekuan izango dira.

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

## SOINUA MUSIKA IKASTEGIA Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala  
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,  
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



Kalebarria, 1 - 1 Durango  
946 030 338 - 688 815 182  
soinua@euskalnet.net



Zorion Agurrak



GOZATU  
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, pekeña! Egun on-ona pasau. Ta martitze-  
nien pare bat trago zure kontu, e? Mosu handi bat.



Irati Lanperrikok 11 urte egingo ditu ekainaren 29an.  
Zorionak eta urte askotarako, Irati! Patxo potolo asko  
zure familiaren partez. Ondo pasatu zure eguna eta  
ondo zaindu besoetan daukazun Txiki!

Eguraldia

ZAPATUA 26° / 14°



DOMEKA 24° / 15°



ASTELEHENA 21° / 16°



MARTITZENA 32° / 15°



EGUAZTENA 22° / 15°



EGUENA 22° / 15°/



BARIKUA 31° / 15°



Botikak

BARIKUA, 26 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre  
2C - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide  
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 27 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide  
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre  
2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo  
etorb. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

BALENCIAGA  
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA  
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL  
Trañabarren 15. - ABADIÑO

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI  
San Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki  
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 28 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide  
Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 29 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA  
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 30 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte  
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San  
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 1 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 2 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL  
Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN  
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis  
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



# << PLAZAREN



## GORA-GORA

Arriluzea, 2  
Durango  
Tel.: 946 811 384

Plan bikaina Tabirakoa udan. Terrazaz, giroaz, zerbitzuaz, edariaz eta janari gazi zein gozoez gozatzeko aukera bikainagaz! Zatoz gugana!



## AI AMA

Josemiel Barandiaran  
kalea 2 - Durango  
Tel.: 94 681 55 72

**Ordutegia**  
Astelehenetik barikura.  
**09:30etik - 23:00etara**  
**Asteburuetan**  
**11:00etatik - 2:00etara**



## NAPOZT

Josemiel Barandiaran,  
8 behea - Durango  
Tel.: 946 004 086

Uda kalean bizi behar delako! Goizean gosariak, eguerdian pintxoak eta arratsaldean lagun arteko poteoa.



## ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta  
plaza - Abadiño  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



## INTXAURRE ELKARTEA

Kurutziaga, 52  
Durango  
Tel.: 946 200 864  
**Gosariak 8:30etik aurrera**, astelehenetik barikura. Pintxoak.  
**Terraza 10:00etatik aurrera**.  
**19:00etatik aurrera**: besteak beste, entsaladak, ogitartekoak, izozkiak eta kafea. Mahai zerbitzua eta giro euskalduna.



## OREKA

Dantzari, 5  
Iurreta  
Tel.: 630 149 417

Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak.



## VANCOUVER

Trañabarren 9  
Matiena  
Tel.: 946 81 7039

Pintxoak, domeketan rabak eta asteburuetan pintxo morunoak.



## ZERO

Andra Mari, 6  
Durango  
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.



# PLAZERA >>



## TABERNA ZARRA

Trañabarren Etorbidea, 1  
Abadiño.  
**Tel.: 946 812 012**  
**685 765 979**

Gure terrazara bazkaltzera, afaltzera edo trago bat hartzera etorri zaitezte! Egutero egutero menuak eta asteburuetan menu bereziak. Bariku eta zapatu gauez errazioak eta plater konbinatuak. Domeka eta jai egutetan rabak eta kroketak. Giro aparta!



## BEDATS

San Prudentzio, 6  
Matiena  
**Tel.: 655 822 401**

Afariak ematen ditugu eguaztenetik domekara, 20:00etatik 23:00etara. Barruan zein terrazan afaldu daiteke.



## BETIXU

Iturburu, 9  
Iurreta  
**Tel.: 946 817 847**

Bertoko produktuekin egindako janaria mendietara begira, Betixuko haragia, egutero arraina, kokotxak brasan, sasoiko barazkiak. Mokaduak eta errazioak leku zoragarri batean. Txuletoi menua 39€ astean zehar.



## OXFORD

Trañabarren, 7  
Matiena  
**Tel.: 94 681 88 84**

Kafe aparta, giro bikaina.



## MOMOTXO

Durango Plaza, 12- Durango  
**Tel.: 946 030 791**

Pintxoak, egutero menua, errazioak.



## OLAJAUREGI

Kurutziaga kalea 52,  
Durango.  
**Tel.: 94 620 08 64**

Menu bereziak, taldeentzako menuak eta ospakizunak. Terrazako karta.



## GAUARGI

Dantzari 4 behea  
Iurreta

Gosari bereziak: pintxoak eta tostadak. Astelehenetik barikura: menu erdiak 7€-tan. Egutero zabalik. Domeketan rabak.



## MIKELDI TABERNA

Kalebarria 7, Durango  
**Tel.: 944073988**

Alde zaharrean kokatuta. Pintxoak eta giro alai.



# “AEBetatik birritan deitu didate panpinak eskatzeko; ezetz esan diet”

Orain hiru urte, Peio Agirre Playmobil panpinak eskuz moldatzen eta apaintzen hasi zen. Euskal Herri osotik deitu diote enkarguak egiteko, eta sinistu ezinik dago panpinek duten arrakasta



**Peio Agirre Gimenez**  
Playmobil panpinak  
moldatzen ditu  
**Berriz | 1969**

**BERRIZ** • AITZIBER BASAURI

**Freddie Mercury, Jimi Hendrix, Amy Winehouse, Marilyn Monroe, Gandhi edo Asterix eta Obelix. Momotxorro, Iturengo joaldunak, Tartalo edo Basajaun. Playmobil panpinak pertsonalizatu egiten ditu Agirrek, eta sare sozialen bitartez erakutsi gero. Enkarguak hartzen ere hasi da. Hala ere, zaletasuna baino ez duela nabarmendu du, musika eta argazkilaritza lez.**

**Zer dela-eta hasi zinen Playmobil panpinak apaintzen?**

Nor ez da inoiz jolastu Playmobil panpinekin? Gure belaunaldian behintzat... Andaluziara oporretan joan nintzen batean bururatu zitzaidan. Playmobil panpinak apaintzeko tradizioa dago han; Aste Santuko prozesio handiak irudikatzen dituzte. Bada, nik ere egin nezakeela pentsatu nuen. Gainera, banuen Playmobil panpinen bilduma txiki bat. Hainbat figuratxo sortu ditut, euren

diorama txiki eta guzti: Berrizko dantzariak; Marino Lejarreta, berari eskainitako oroitarriagaz; Berrizen elefante baten eta idi pare baten artean egindako desafio ezaguna... Nik jotzen dudana Storm musika taldearen diorama ere badut. Baina lekua behar da dioramatarako, eta, azkenean, panpinak eurak bakarrik apaintzen hasi nintzen. Ehundik gora ditut etxean.

**Ondo gordeta izango dituzu denak.**

Bai, beira-arasa batean ditut. Lekua

egin behar izan diet. Esan behar dut bildumazalea naizela. 30 bat argazki kamera ditut, eta jostailuzko 200 bat rally kotxe.

**Zenbat denbora behar izaten duzu panpinak eskuz apaintzeko?**

Astebete inguru panpina bat egiteko. Behar ditudan piezak lortu eta gero, panpina apaindu eta pintatu egiten dut. Baliteke piezaren bat ez aurkitzea; orduan, eskuz egiten ditut. Moldeatzeko pasta erabiltzen dut panpinaren gainean formak irudikatzen (txapelak, zapiak...).

**Harrituta zaude panpinen arrakastagaz?**

Oso harrituta! Euskal Herriko hainbat lekutatik deitu didate panpinak egiteko. Batez ere, dantzariak eskatzen dizkirate. Otsagabiatik (Nafarroa), adibidez, 'Bobo' pertsonaia enkargatu dit urteetan 'Bobo'-rena egin duenak. Postaz bidaltzen hasi naiz, baina beldurra ematen dit,

“

**Moldeatzeko pasta erabiltzen dut panpinaren gainean formak irudikatzen (txapelak, zapiak...)**

—

oso apurkorak direlako. Iparraldetik ere maskaradako dantzariak eskatu dizkirate. Dudarik barik horretxe dute arrakastarik gehien. Baina ez dut oso argi hori zelan kudeatu. Niretzat hau ez da negozio bat. Poza ematen du norberak egindako lana hain gustuko izatea jendeak. Baina harrituta nago hartu duen dimentsioagaz. AEBetatik birritan deitu didate panpinak eskatzeko, baina ezetz esan diet.

**Afizioa ofizio bihurtuko duzu?**

Inondik inora. Hau zaletasun bat da niretzat, eta afizioa ofizio bihurtuz gero, ez da berdina disfrutatzen.

**Bat aukeratzeko eskatzen badizut...**

Iturengo joalduna eta maskaradako dantzariak. Lan handia dute, detaile asko. Kiss musika taldeak ere lan handia eskatu zidan. Bestalde, Torrente oso barregarria iruditzen zait pertsonaia lez.

**Lau hortza**

Ainhoa Olaso Sopelana  
Ikaslea



**Batzuetan gogoratzen naiz eta besteetan ez**

Aurkitu aurtengo negutik gaur arte dauden zazpi ezberdintasunak. Errealitate ederra hauskorra ere badela badakigu orain. Inork ez luke, herriko bihotz eroriena duenak ezta, halako herri tristerik imajinatuko. Inongo plan urbanistiko desatsegineak ere.

Herritarren begiek distira egiten dute. Baina ez dute zorionik islatzen... Inoiz zoriona ikusi duela dioenik badago, baina jokoan edo errepidetako seinaleetako oreinetan topatu daitekeen bezala.

Ezegonkortasunaren agendan apuntatuko ditugu datozen etxe kaleratzeen egunak, eta sarritan gogoratzen naiz Amaia Egañaz (2012). Gainpuztu dizkiguten udarako asmoez. Aukeran, zapore gutxi duen ilusioa sartu digute etxeetan, auskalo nondik gobernatzen diren telebistetatik.

Ez dut uste kalkulatu daitekeenik zenbat maitasun aurreztu den martxotik hona (“maitasuna aurreztu” esatean mingaina oraindik be-roegi dagoen hitzarekin erre zait). Batzuetan gogoratzen naiz eta besteetan ez. Urtu diren helduleku guztiez. Kontu korronteetako zifrak igotzen dituztenez edo noizean behin egongeletako besaulkietan gure alboan etzaten direnez.

Oroitzen naiz zabortegetan hondoratutako auzokoez eta lotsez. Eta porlanezko zubi erraldoien itzalez.

Dena dago erortzeaz. Herria bueltatzeko exijituko dugu eta tristura hau gaindituko duena.

**Hemen  
eta  
online**

**iragarki  
laburrak**  
.eus